

B1EA 2018

Antolamendu arauak

Règles d'organisation

1) Sessions

Un examen pour l'obtention du certificat validant le niveau B1 de la langue basque (B1EA) sera organisé en Pays Basque de France en 2018.

Une session d'examen de niveau B1 ouverte au public adulte en cours d'apprentissage de la langue basque se déroulera au printemps 2018.

2) Public concerné : conditions

Le niveau B1 correspond aux spécifications du Niveau seuil pour un visiteur en pays étranger. Deux traits le caractérisent particulièrement. Le premier est la capacité à poursuivre une interaction et à obtenir ce que l'on veut dans des situations différentes. Le deuxième trait est la capacité de faire face habilement aux problèmes de la vie quotidienne. L'examen s'adresse aux personnes souhaitant obtenir le certificat de niveau B1 de langue basque, qu'elles l'aient reçue comme langue maternelle, ou qu'elles soient entrain de l'acquérir par initiative personnelle ou dans un centre de formation pour adultes.

L'examen est organisé sur la base d'un appel à candidatures ouvert à toute personne¹ âgée d'au moins 18 ans au 31 décembre 2018, soit née avant le 1er janvier 2001.

Pour se présenter à l'examen, il faudra s'acquitter d'une somme de 21 €.

1) Deialdiak

Euskara gaitasuna egiaztatzen duen B1 mailako agiria eskuratzeko (B1EA) azterketak antolatuko dira 2018an Iparraldean.

B1 maila egiaztatzeko azterketak, euskara ikasten ari diren helduei zuzenduak, deialdi ireki baten bidez iraganen dira 2018ko udaberrian.

2) Nori irekiak: baldintzak

B1 maila, bisitariak atzerriko herrialde batera joateko behar duen Atalase-mailari dagokio, eta bi ezaugarri nagusi ditu. Lehen ezaugarria da zenbait egoeratan harremanak izateko eta nahi duena lortzeko gaitasuna. Bigarren ezaugarria eguneroko bizitzako arazoei aurre egiterakoan, malgutasunez jokatzeko gaitasuna da.

Azterketa, B1 mailako euskara gaitasun agiria eskuratu nahi duten pertsonen² irekia zaie, ama-hizkuntza gisa baitute edo beren baitatik edo helduentzako euskaltegi batean landuz ikasten ari baitira. Azterketa, deialdi irekiz antolatua da 2018ko abenduaren 31n berantenez 18 urte betetzen dutenentzat, hots 2001eko urtarrilaren 1.a aitzin sortuentzat.

Azterketan parte hartu ahal izateko 21 €ko saria ordaindu beharko da.

¹ Pour des raisons d'organisation et de moyens, on n'acceptera qu'un nombre limité de candidats, en tenant compte d'un des critères géographiques suivants : seuls seront acceptés les candidats nés en France, y vivant, y travaillant ou y étudiant.

² Antolaketa eta baliabide arazoak direla medio, kandidatu kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontutan hartuz: frantziar Estatuan, sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren kandidatuak baizik ez dira onartuko.

Le candidat devra présenter une pièce d'identité le jour de l'examen.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du kandidatuak.

3) Dates et lieux d'examen

Les délais et le lieu du dispositif de certification de l'année en cours seront publiés au mois de février sur le site Internet de l'OPLB, ainsi que dans les médias.

3 Azterketen leku-egunak

2018ko otsailean, EEPko web gunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokaguneak.

4) Nombre de présentations

Chaque candidat pourra se présenter à l'examen autant de fois qu'il le voudra.

4) Errepikapenak

Kandidatu bakoitzak nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko du bere burua azterketara.

5) Consultation de copie

Si un candidat souhaite consulter sa copie, il peut en faire la demande, à la date fixée à cet effet par le Comité Scientifique.

5) Kopien kontsulta

Kandidatu batek bere azterketa ikusi nahi izanez gero Batzorde Zientifikoak finkatuko duen data batean egin dezake.

6) Invalidation

A) Tout candidat pris en flagrant délit de fraude ou de tentative de fraude, ou utilisant des documents prohibés, risque l'exclusion de la salle d'examen et la nullité de l'examen.

La décision d'exclusion et de nullité revient aux membres du jury présents le jour de l'examen.

B) A la fin de l'examen, s'il s'avérait que le cas décrit en A s'était produit, les membres du jury présents le jour de l'examen pourraient décider d'exclure le candidat de l'examen.

6) Baliogabetzea

A) Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiatzen den kandidatua, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izan daiteke eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

B) Azterketa bururatzean, A puntuan aipatu gertakaria gauzatu dela ikusiko balitz, aztertzaile-taldeak kandidatua azterketatik kanpo uztea erabaki lezake.

7) Détail du déroulement

Déroulement de l'examen écrit : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement 2018 de l'examen B1EA.**

Déroulement de l'examen oral : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement 2018 de l'examen B1EA.**

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Idatzizko azterketaren iragan moldea : **B1EA Azterketa eredia 2018** dokumentuaren arabera egingen da.

Ahozko azterketaren iragan moldea : **B1EA Azterketa eredia 2018** dokumentuaren arabera egingen da.

En ce qui concerne la composition et le rôle du jury :

- Tout candidat se présentant à l'épreuve orale devra prouver sa maîtrise orale de la langue devant un jury composé de deux examinateurs.
- Un membre du jury (à tour de rôle, s'il le souhaitent) vérifiera la pièce d'identité du candidat et assurera le déroulement technique de l'épreuve (inscription des noms et prénoms, gestion du temps...), pendant que le second interrogera le candidat.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu aztertzaile talde baten aitzinean frogatu beharko du bere ahozko hizkuntza gaitasuna.
- Azterketa taldeko batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoak segurtatuko du (izen-deituren hartzea, minutuen neurketa...), besteak kandidatua galdekatuko duen bitartean.